


2013ko apirilean Euskal AEko industria-prezioek %0,4 egin dute behera aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2013ko apirila 2012koaren aldean) %0,9 jaitsi ziren

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,4 jaitsi ziren 2013ko apirilean aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan hartuta, apirileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %0,9 jaitsi da.

Euskal AEko industria prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2013ko apirilean, "Industria kimikoa" (%1,5), eta "Produktu farmazeutikoen fabrikazioa" (%1,3) adarrek gehitu zituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Prezioetan jaitsierak izan zituzten sektoreak honakoak izan ziren: "Kokeriak eta petrolio finntzea" (% -4,0), "Altzariak eta beste manufaktura industriak" (%-0,8), "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (%-0,7).

Urte artean, 2013ko apirila 2012koaren aldean, hona hemen prezio-hazkunderik handienak: "Makineria eta ekipoaren fabrikazioa" (%2,6), "Garraio-materialaren fabrikazioa" (%1,7), "Produktu farmazeutikoen fabrikazioa" (%1,6). Prezio-jaitsierarik handienak: "Kokeriak eta petrolio finntzea" (%-6,9), "Metalurgia eta produktu metalikoak" (%-2,2), "Erauzketa industriak" (%-1,4), besteren artean.

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, apirilean, sektore-talde handien prezioen bilakaera honakoa izan zen: Energiaren prezioa %2,2 jaitsi da, Ekipo-

ondasunetan eta Bitartekoetan aldaketarik ez (%0,0); Kontsumoko ondasunak oro har %0,2 jaitsi dira, haien barruan Kontsumo ez-iraunkorrekoak %0,3 jaitsi dira eta Iraunkorrekoak %0,2 igo.

Ondasun-talde handi hauen prezioen aldakuntzak urte artean ezberdinak izan dira. Energiaren prezioak %3,9 jaitsi ziren, Bitarteko Ondasunenak %1,3; Ekipo-Ondasunenak %1,5 igo eta Kontsumo-Ondasunenak %0,7. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak %0,6 igo ziren, eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %0,8.

Euskal Aeko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak. 2013ko apirila (p)				
	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2013 api / 2013 mar	2013 api / 2012 api	2013 api / 2012 abe
INDIZE OROKORRA	110,1	-0,4	-0,9	0,6
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	97,4	0,6	-1,4	2,6
Manufaktura-industria	108,0	-0,6	-1,2	0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	126,3	0,6	1,1	2,1
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondasunak	105,2	-0,2	0,7	0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	101,9	0,2	0,6	0,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,4	-0,3	0,8	-0,2
Ekipo-ondasunak	104,1	0,0	1,5	1,2
Bitarteko ondasunak	105,4	0,0	-1,3	-0,3
Energia	128,6	-2,2	-3,9	5,0

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen (IPRI) gaineko datu-bankua